



ERABAKIA,K, ARABAKO FORU ALDUNDIKO KARRERAKO FUNTZIONARIOAK, BERE AURKA EGIN DIREN USTEZKO ERREPRESALIAK DIRELA-ETA AURKEZTUTAKO KEXA/SALAKETARI BURUZKOA

I. KONTSULTA

1. 2022ko abenduaren 15ean, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernukideen eta goi-kargudunen Etika Publikoaren Batzordeari zuzendutako idazkia sartu zen Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean. Idazki horren bidez,k kexa edo salaketa bat aurkeztu zuen "*Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa onesten duen Diputatuen Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakian jasotako balio, printzipio edo jokabideen ez-betetze nabarmena izan baita, nire ustez*". Haren iritziz, Arabako Foru Aldundiak, Aldundiko funtzionarioek eta kargu publikoek eragindako errepresalien kasu argi bat jasan du, eta baliteke haiek 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua ez betetzea.
2. Idazki hori orokorra dela egiaztatu da, bertan ez baitaude identifikatuta nortzuei egotzi dizkien kode etikoaren balizko ez-betetzeak. Hala, eskaera behar bezala izapidetu ahal izateko eta ebaluazio etikoa egiteko zalantzan jartzen diren jokabideen inguruabar zehatzak zehaztu ahal izateko, 10 eguneko epea eman zitzaion salaketa egileari, bere kexa/salaketa noren aurka jarri zuen identifikatuta zezan.

Hala, 2023ko urtarrilaren 20an, interesdunak akatsak zuzentzeko idazkia aurkeztu zuen. Idazki horretan, adierazi zuen, "*nire ustez, zeuek egin behar zenuten aipatutako kode etikoa ustez bete ez duten pertsonak nortzuk diren argitzeko eta identifikatzeko ikerketa*", eta adierazi zuen, bere ustez, honako hauek izan zirela Gobernu Onerako Kode Etikoa (aurrerantzean, GOKE) ustez bete ez dutenak:

- jauna, bere mendeko bati buruzko diziiplina espediente bat proposatu duelako, aurretik ikerketarik egin gabe edo aipatutako langilearekin harremanetan jarri gabe, salaketa egileek dokumentaziorik ez zutela aurkeztu jakinda, eta horrek, bere ustez, egin diren ustezko errepresaliak frogatzen ditu.
-andrea, diziiplina espedientea instruitzeko agindua emateagatik, aldeztu aurretik ikerketa egin gabe eta berarekin harremanetan jarri gabe, eta diziiplina espedientea irekitzeko eskaeran dokumentaziorik ez zegoela jakinda.
- Arabako Foru Aldundiko sei funtzionario, diziiplina espedientea hasteko eskatu zutelako.

Azkenik, Batzorde honi eskatu zion egin beharreko ikerketak egiteko eta beharrezko neurriak hartzeko.



3. Bigarren idazkia jaso ondoren,ari etaari helarazi zitzaien, egoki iritziz gero Etika Publikorako Batzorde honetara bidal zitzaten bidalitako kexa/salaketa adierazitako gertakariei eta gogoetei buruz egokitzat jotzen zituzten adierazpen eta alegazioak.
4. 2023ko otsailaren 20an,k alegazio-idazkia aurkeztu zuen Etika Publikorako Batzordeko Idazkaritzan. Bertan azaltzen duenez, ikusirik bere titulartasuneko den Saileko funtzionariori diziplina espedientea irekitzeko eskaeraren idazkia, Arabako Foru Aldundiko funtzionarioek bidalia, idazki hori 2020ko abenduaren 29an helarazi zion Arabako Foru Aldundian diziplina espedienteak instruitzeko eskumena duenari. Horrez gain, argitu zuen jarduketa horrekin Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 19.23 artikulua bete zela. Izan ere, artikulua horrek xedatzen du diziplina espedienteen instrukzio agindua espedientea irekita duen langileak lan egiten duen saileko diputatu titularraren proposamenez egin behar dela.

Zehapen prozedura hasi aurretik jarduketarik ez egiteagatik egotzitako ustezko errepresaliei dagokienez, argitu zuen ezen, Estatuko Administrazioako Funtzionarioen Diziplina Araubidearen Erregelamenduaren 28. artikuluan xedatzen den informazio erreserbatuaren hautazko izaera alde batera utzita, agindu horrek diziplina eskuduntzak dituen agintaritzak eskudunari ematen diola informazio erreserbatuaren fasea agintzeko aukera, zeina, diputatu nagusiaren abenduaren 9ko 434/2020 Dekretuaren arabera, ez baita inola ere bere esku geratzen.

Amaitzeko, adierazi zuen ez dagoela arrazoirik Arabako Lurralde Historikoko kargu publikodunen eta sektore publikoko ordezkarien gobernu onerako kode etikoa urratutzat jotzeko, foru araudiko eskakizunak betetzera mugatu baitzen.

5. Bi egun geroago, otsailaren 22an,k bidalitako mezu bat heldu zen batzordearen posta elektronikoko postontzian, alegazio idazki batekin eta Arartekok 2022ko irailaren 1ean bidalitako idazki batekin batera.

Dokumentazio horretan,k Arabako Foru Aldundian eta beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako salaketan eta kexen ondorioz bere sailak egindako jarduketak xehetasunez zehazteaz gain, azaltzen zuen ezen,k 2020ko abenduaren 29an diziplina espedientea hasteko eskatuz bidalitako idazkia ikusita, berak, 434/2020 Dekretuarekin bat etorriz (zeinaren bidez diputatu nagusiak horrelako espedienteen instrukzioa agintzeko eginkizuna eskuordetu baitzion),ari diziplina prozedura hastea xedatu zuela Foru Aginduaren bidez.



Horrez gain, zehaztu zuen prozedura hori hasteko erabili zen prozedura indarreko araudian ezarritakoa izan zela, eta ez zela nahitaezkoa aurretiazko ikerketa erreserbatuaren fasea.

II. APLIKAZIO ARAUAK

1. Diputatuen Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakiaren bidez, zeina legegintzaldi honetan 654/2019 Erabakiaren bidez berretsi baitzen, onspena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien Gobernu Onerako Kode Etikoari, foru sektore publikoan printzipio etikoen sendotzea babestu eta gidatzeko.

Kode horretan, kargu publikodunen jokabideari buruzko zenbait printzipio orokor jasotzen dira. Printzipio horiek zintzotasunaren eta gardentasunaren inguruan daude antolatuta, eta hiru arlotan proiektatzen dira: erakunde kalitatean, herritarrekiko harremanetan eta norbere etika eta jokabidean.

2. Foru kargu publikodunen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 19.3 artikulua Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko gobernuko kideen eta goi-kargudunen Etika Publikoaren Batzordea izatea aurreikusten du, bai eta batzorde horren egitekoa aipatutako kodea bete dadin zaintzea izatea ere.

Horiek horrela, GOKEn zazpigarren apartatuan Etika Publikoaren Batzordea sortu zen, organo independente gisa, kode horretan araututako jokabide arau, printzipio eta balioak bultzatu, sustatu, haietaz arduratu eta beteko direla bermatzeko, bai eta erakundearen irudia kaltetu lezakeen arau hauste edo okerreko jokabide orori aurrea hartzeko ere.

III. ETIKA PUBLIKOAREN BATZORDEARI IRITZIA EMATEKO AURKEZTU ZAION GAIA

1. GOKEn bigarren artikuluan xedatutakoaren arabera, Etika Publikoaren Batzorde honen eginkizunak foru gobernuko kideengan, goi kargudunengan eta Arabako Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen zerbitzura dauden gainerako zuzendariengan proiektatuko dira, bai eta Gobernu Kontseiluak edo haren organo eskudunek —foru sozietate publikoen kasuan— izaera eta kapitalaren zatirik handiena pribatua duten erakundeetan edo haren kontrola hainbat administrazio publikori edo haien sektore publikoei dagokien beste edozein erakundetan zuzendaritza edo administrazio karguak betetzeko



izendatutako pertsonengan ere, baldin eta egungo GOKE kodeari atxikita badaude, bai automatikoki hautatzen edo izendatzen diren unetik, bai kodea onetsi aurretik izendatutako kargudunen kasuan kontrakorik adierazi ez dutelako.

Hala, kode horretan jasotako etika eta jokabide arauak ondorioak dituzte, eta foru sektore publikoko kargu publikodun horiei eskatu ahal zaizkie. Gainerako langileak, funtzionarioak edo beste mota batekoak, kodearen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira, eta haien jarduketek zalantza etikoren bat planteatzen badute, batzorde honek ez du iritzirik emateko eskumenik izango. Hori dela eta, Batzorde honek ez du iritzirik emangok Arabako Foru Aldundiko sei funtzionariori buruz aurkeztutako kexa/salaketaz.

2. Aurreko oharrek gai honetan egin behar diren gogoetak mugatzeko balio dute; beraz, gogoeta horiek salaketaren xede diren beste bi pertsoneri bakarrik eragingo die, hau da,ari etaari.
3. Salatzaileak dio litekeena dela Etika eta Jokabide Kodea ez betetzea, zenbait jarduketatan oinarrituta; izan ere, 2023ko urtarrileko idazkian, bi jarduketetara mugatu zituen, eta ustezko errepresaliatza jo zituen: lehena, aurretiazko ikerketa egin gabe edo harremanetan jarri gabe, diziplina prozedura hastea bere aurka; bigarrena, diziplina espediente hori irekitzeko eskatu zuten pertsonen egindako akusazioei eusten dien dokumentu bidezko frogarik aurkeztu ez dela jakitea.
4. Aurretik harremanetan jarri gabe edo ikerketarik egin gabe diziplina prozedura bat hasteari dagokionez, urtarrilaren 10eko 33/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estatuako Administrazioako Funtzionarioen Diziplina Araubidearen Erregelamenduaren 28. artikulua xedatzen duenez, "*prozedura hasteko eskumena duen organoak aldeztu aurretik erabaki ahal izango du informazio erresebatuaren prozedura egitea*".

Manu horretan "ahal izan" esapidetik argi eta garbi ondoriozta daiteke, salatutako bi pertsonen adierazi duten bezala, aurretiazko informazio hori irekitzea ez dela nahitaezkoa, hautazkoa edo aukerakoa baita, eta izaera hori argi eta garbi berretsi du jurisprudentziak. Hala, adibidez, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak urriaren 20ko 997/2005 epaian adierazi zuen ezen "*kontuan hartu behar dugu gerta zitekeela informazio erresebatua inoiz ez irekitzea, hautazkoa delako, edo kasu honetan egin den bezala irekitzea, eta, horrela, prozedura amaitu eta artxibatu edo diziplina jarduketekin hasi. Errekurtsogileak ez du, informazio hori zuzentzeari dagokionez, administrazioak informazio erresebatuaren, haren edukiaren eta amaieraren prozedurari hasiera emateko duen ahalia, ez eta diziplina espediente bat irekitzekoa ere administrazioak egitatei buruz egiten duen kalifikazioan oinarrituta.*



Gauzak horrela, agintaritza eskuduna ez dago behartuta aurretiazko ikerketa bat egitea erabakitzea, eta, beraz, nekez uler daiteke aztertzen ari garen kasuan ez direla bete GOKEk, eta baita ordenamendu juridikoak ere, jasotako arau etikoak.

5. Bestalde, salaketa egilearen baieztapenari dagokionez, hau da,k etak jakin zutela ez zegoela dokumentu bidezko frogarik bere aurkako diziiplina espedientea irekitzea sustatu zuten akusazioei eusteko, kontuan hartu behar da diziiplina prozeduretan ez dagoela ezarrita salaketa bat onartzeko kausa jakinik. Beste prozedura batzuetan ez bezala, enplegatu publikoaren diziiplina araubidea erregulatzen duen araudiak ez du eskatzen salaketaren hasierako azterketa bat egitea hura artxibatzeke; beraz, ezerk ez du pentsarazten bi diputatuen jarduketa egokia izan ez zenik, baizik eta deskribatutakoa bezalako egoerak arduraz kudeatzeko ezarritako prozedurari jarraitu zitzaioela, eta nekez esan daiteke kasu honetan GOKEn printzipio eta balioen bat urratu denik.
6. Bestalde, 2023ko urtarrilaren 20ko idazkian Etika Publikorako Batzordeak dagozkion ikerketak egiteko eta beharrezko neurriak hartzeko egindako eskaerari dagokionez, argitu behar da batzorde honek ez duela eskumenik ez baliabiderik salaketa egilearen bi idazkietan deskribatzen diren egoeren gainean ikerketa bat irekitzeko.
7. Azkenik, kargu publikodunek GOKEn ezarritako arauen arabera jokatzeari dagokionez, gogoratu behar da batzorde hau ez da ahalmen mugaezinak dituen organoa; haatik, batzorde honen egitekoa askoz ere mugatuagoa da, jokabide horiek aipatutako kodean jasotako balioen eta printzipioen aurkakoak diren ala ez adierazi besterik ez baitu egiten.

Horregatik, salatzaileak abenduaren 15eko idazkian aipatzen duen 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren ez betetzeari dagokionez, nabarmendu behar da batzorde honi ez dagokiola administrazio jardueraren legezketasunari buruzko iritzirik ematea. Gai hori baloratzen hasiz gero, batzorde honek gehiegikeriaz jokatu luke; izan ere, batzordearen eginkizunaren oinarria da foru kargu publikoak GOKEn arauetara eta printzipioetara egokitzen diren ala ez erabakitzea, eta eremu administratibo eta judizialean ebazten da kargu horiek gauzatutako jarduketetan legea betetzen den ala ez.

Horregatik guztiagatik, Etika Publikoaren Batzordeak, aho batez, honako hau ebatzi du:

EBAZPENA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Lurralde Historikoko sektore
publikoko gobernukideen eta goi
kargudunen Ética Publikoaren Batzordea

Comisión de Ética Pública de los miembros
del Gobierno y altos cargos del sector
público foral del Territorio Histórico de
Álava

- I. Ez onartzea salaketa egileak 2023ko urtarrilaren 20an aurkeztutako zuzenketa idazkian identifikatutako sei funtzionarioen aurka jarritako salaketa, pertsona horiek ez daudelako EGOKen mende eta, ondorioz, ez daudelako batzorde honen jarduera eremuaren barruan.

- II.aren eta Merkataritza etaaren jarduketei buruz aurkeztutako salaketa/kexa. Batzorde honek ez du GOKEn jasotako balio, printzipio eta jarraibideen urraketarik egin den inolako zantzurik ikusten haien jokabidean, ikusita igorri den dokumentazioa eta informazioa, batzorde honek aztertua.

Sin.: Itziar Gonzalo de Zuazo
BATZORDEBURUA

Sin.: Elena Ferreira Sebastián
BATZORDEKIDEA

Sin.: Javier Garaizar Candina
BATZORDEKIDEA

Sin.: Fernando Salazar Rodríguez de
Mendarozqueta
BATZORDEKIDEA

Gasteiz, 2023ko apirilaren 25a.